

Ezkio. Igartubeiti Museoa "Hilabete aldaketarekin batera hiru ekintza berri egongo dira Igartubeti Baserri Museoan"

Hasten den hilabete berriarekin batera ekintza berriak datoz Igartubeiti baserri museotik, familieek apirilean zehar hiru tailer didaktiko desberdinetan parte hartzeko aukera izango dutelarik.

Orain arte tailer desberdinak antolatu dira Igartubeitiko Interpretazio zentruan hauetan gaztetxo ugarik parte hartu dutelarik. Gai inguru berdina dute ekintza hauek guztiak, baserria, eta honekin lotutako tailer eta eskulanak egin izan dituzte, hemendik aurrera gehiago ikasi eta ondo pasatzeko aukera zabalik jarraitzen duelarik.

Horrela, apirileko lehenengo tailerra larunbat honetan izango da, oraingoan Ipar haizearen erronka filma ikusteko aukera izango dutelarik. Hurrengo larunbatean Aste Santuko oporrak ospatzen direnez ez da tailerrik egongo, baina hauek amaitu eta apirilaren 18an ' Herri kirolen maratokia ' rekin ondo pasatzeko aukera izango dute gaztetxoek.

Astebete geroago eta hilabetea ondo amaitzeko kandelak egiteko tailerra izango dugu Igartubeiti Museoan, eta honekin amaitu ondoren Igartu merienda egongo da bertaratutako guztientzat. Gogoratu tailer hauetako batean parte hartzeko izena aldez aurretik eman beharko dela.

M.G.